

## **Munich-eko Unibertsitate Teknikoko Michael Joham Doktorea Mondragon Unibertsitatean egon da.**

2010/06/29

Michael Joham Doktorea, Munich-eko Unibertsitate Teknikoko Associate Institute for Signal Processing-eko irakasle eta ikertzailea Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan egon da eta hari gabe sareen inguruko "MIMO Broadcast with Linear Precoding: Asymptotic Weighted Sum Rate and QoS Feasibility" hitzaldia eman du. Joham Doktoreak Seinalearen eta Komunikazioen Teoria ikerketa lerroko ikertzaileekin lanean aritu da prestazio altuko erabiltzaile anitzeko sistemen diseinuan eta azterketan.

